



OKONDOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OQUENDO

MENDEKOTASUNAREN BALORAZIOA

MENDEKOTASUN EGOERA BATEN AURREAN



Nor izan daiteke mendekotasuna duen pertsona?

Mendekotasuna duen pertsona da eguneroko jarduerak burutzeko inoren laguntza behar duen pertsona oro (zaintza pertsonalerako, etxeko oinarrizko jarduerak egiteko, oinarrizko mugikortasuna lortzeko, pertsona eta objektuak ezagutzeko, orientatzeko eta betebeharrak errazak ulertzeko eta betetzeko).

Inoren laguntza behar izatea adinagatik, gaixotasunagatik zein desgaitasunagatik gerta daiteke. Hala ere, adinekoa izateak, desgaitasun egoeran egoteak edo laneko ezgaitasuna aitortuta izateak ez dakar beti mendekotasun egoeran egon behar izatea

NIRE UDALEKO OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETARA JOANGO NAIZ



Non eta Nola eskatzen da mendekotasuna?

Balorazioaren lehen eskaera Oinarrizko Gizarte- Zerbitzuetan egin behar da beti, eskatzailea erroldatuta dagoen lekuan.

Eskaeraz gain (pertsonak edo ordezkariak sinatua), NANaren fotokopia, Osasun txostena, errolda agiria, bankuko helbideratze agiria eta borondatezko ordezkari-tza modelo ere aurkeztu behar dira.

OINARRIZKO GIZARTE- ZERBITZUAK ESKAERA ALDUNDIRA BIDALIKO DU



Non kudeatzen da mendekotasun egoeraren aitorpena?

Arabako Foru Aldundiak espediente bat egingo du, 2 (bi) hilean ebazpena emateko betebeharrak duelarik dokumenturik falta ez bada; eta dokumenturen bat falta bada, idatziz egingo da eskaera, dokumentuak 10 egunean aurkeztu behar direlarik.

Eskatzaileari, telefonoz, balorazioa egiteko bisitaren hitzordua adieraziko zaio.

MENDEKOTASUNA BALORATZEKO ETA ORIENTATZEKO ETXEZ ETXEKO BISITA EGINGO DA



Nolakoa da balorazioa?

Talde multiprofesional bat eskatzailearen etxera joango da, eta familiartekoen aurrean, egunerako oinarrizko jarduerak burutu ahal izateko eskatzailek dituen zailtasunak ebaluatuko ditu.

Memento horretan adieraziko da pertsonak duen mendekotasun gradua eta maila; eta eskatzailearen parte-hartzearekin, Banakako Arreta Plana egingo da, plan horretan adieraziko baita zein den Zerbitzurik edo prestaziorik egokiena pertsona horren beharrei aurre egiteko. Pertsonak memento horretan hala eskatuz gero, ezarritako Zerbitzu edo prestazioen eskaera egingo da

BAPa ETA EBAZPENA BIDALIKO DIRA



DIPUTACION FORAL DE ALAVA
www.alava.net/ffbs

Nola jakin ofizialki zeintzuk diren balorazioak eskaintze dituen eskubideak?

Arabako Foru Aldundiak Foru Agindu bat bidaliko du mendekotasun gradua eta maila aitortuz (ebazpenarekin bat etorri ezean, erreklamazioak egin daitezke hilabeteko epean, sortutako desadostasunak idatziz adieraziz).

Ondoren, etxean sinatutako BAParen berrespena jasoko da.

Gainera, mendekotasunaren aitorpenak fiskalki desgrabatze balio du. .

Balorazioa eta/edo BAPa berrikus daiteke?

Okerragotzerik edo hobekuntzarik egonez gero, balorazioaren berrikuspenean eska daite. Baita, egoera personalean zein sozialen aldaketak gertatuz gero, BAParen aldaketa ere.